

Oihalezko maskarilak nola egin

1. OHARRAK


1. Maskarilak egiteko oihalak algodoizkoak badira, askoz hobe. Azken finean, kontuan izan behar da azalarekin zuzeneko kontaktuan egongo direla maskarilak.
2. Algodoizkoak dira etxean egindako maskarila hauek, hortaz, ez dute osasun zentroetarako balio. Beste neurririk ez duten lanbide horietarako mesedegarriak izan daitezke, baina haintzat hartu behar dira autoritateek emandako gomendioak: hiru ordu baina gehiagoz edukitzea ez da gomendagarria, horregati, hiru ordutik behin garbitzera bota behar dira oihalezko maskarila hauek.

2. MATERIALAK


1. Algodoizko oihalak
2. Goma elastikoa (horrelakorik izan ezean, zintak edo oinetakoen lokarriek. balio dute baita ere)
3. Josteko behar diren bestelako materialak (haria, orratzak, guraizeak, eta josteko makina, bestela eskuz ere egin daiteke)
4. Lisagailua (plantxa)

3. EMAN BEHARREKO URRATSAK


1. 18 cm-ko luzeerako goma zatiak moztu, gutxi gora behera
2. 39 x 21 cm-tako oihal zatiak moztu
3. Oihala horizontalean jarri (lanerako erabiliko den aldea "alde ona" edo marrazkiduna izango da)




4. Oihala horizontalean izanda, markatu zein den erdia (EZ moztu)



5. Erdi bat hartu, eta iskinetik 1cm neurtu barrurantz; bertan gomaren punta bat lotu orratz batekin. Barruko aldean berdin, barrutik 1cm neurtu kanporantz, eta lotu berri dugun gomaren beste aldea hor lotu behar da.



6. Behin gomak non doazen jakinda, tolestu oihala. Gomak oihalaren erdian geratuko dira, eta orduan josi.
7. Oihala lauki forman dugu dagoeneko. Orain borde guztiak josi behar dira, baina alde bat ez da osorik josiko; 4 cm-ko zulotxoak utziko da josi gabe, gero bertatik buelta eman ahal izateko.



8. Borde horiek josi ostean, josi gabe utzitako zulotxotik barruan geratu diren orratzak atera
9. Orratzak ateratzean, zulotxo horretatik buelta eman behar zaio oihalari.
10. Ondoren, gomak kanpoaldean geratuko dira. Behin hau lortuta, oihala lisatu egin beharko da maskarilaren tolesdurak egin ahal izateko.
11. Bi tolesdura egin eta orratzekin markatu, neurri finkorik gabe: gutxi gora behera.
12. Tolesdura horiek josi.
13. Azkenik, zintzilik geratzen diren hariak moztu behar dira.